

Erabakia, 2026ko apirilaren 14koa, UPV/EHUko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordearena, 2026-2027 ikasturtean B1B1, B2B2, C1C1 eta C2C2 hizkuntza eskakizunak prestatzeko euskara ikastaroen eta liberazioen deialdia egiteko dena.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sinatutako hitzarmenari jarraituz, 2026-2027 ikasturterako TEKAZELentzako euskara ikastaroen eskaintza egiten da.

Unibertsitateak TEKAZELen eskura jartzen dituen baliabideen artean, lan liberazioak daude, bai osoak bai bi ordukoak. Argitaratu den deialdi bakoitzarentzat eredu bana dago eta eskatzaileak deialdi guztietara aurkeztu ahalko dira horretarako betekizunak betetzen badituzte. Hala ere, eskatzaile bakoitzari eskari bakarra esleituko zaio:

- **5 orduko eta barnetegietako edo udako ikastaroetarako** liberazioetarako deialdia (I. eranskina).
- **2 orduko** liberazioetarako deialdia (II. eranskina).
- **2 orduko** liberazioetarako **deialdi berezia**: B2B2 HE egiaztatua izanik, **C1C1 HE lortu nahi duten** langileentzat (III eranskina).
- **C2C2 HE** prestatzeko liberazioetarako deialdia. (IV eranskina).

Horrez gain, **"informazio gehigarria"** dokumentuan IVAPek zehaztutako ezaugarriak argitaratzen dira, aurreko lau eranskinetara aplikatuko direna.

Beraz,

Hau erabaki dut:

Lehenengoa.- 2026-2027 ikasturteko euskara ikastaroetarako deialdiak argitaratzea.

Bigarrena.- Ebazpen honetan jasotako aurreikuspenen eta IVAPen ebazpenaren artean desadostasunik badago, azken horretan xedatutakoa nagusituko da. Era berean, IVAPen ebazpena aplikatutako da deialdi hauetan berariaz aipatzen ez diren guztietan.

Hirugarrena.- Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakioke Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean.

Leioan, 2026ko apirilaren 14an.

Resolución de 14 de abril de 2026, de la Vicerrectora de Euskara y Planificación Lingüística de la UPV/EHU, por la que se convocan los cursos y liberaciones para el aprendizaje del euskara durante el curso 2026-2027, para la preparación de los perfiles lingüísticos B1B1, B2B2, C1C1 y C2C2.

De acuerdo al convenio firmado entre el Instituto Vasco de Administración Pública y la Universidad del País Vasco, se convocan los cursos de euskara para el PTGAS durante el curso 2026-2027.

Entre los medios que la Universidad pone a disposición del PTGAS, están las liberaciones laborales, totales o de dos horas. Hay un modelo para cada una de las convocatorias que se publican. Cada solicitante podrá presentarse a todas las convocatorias para las que cumpla requisito. Solo se concederá una de ellas:

- Convocatoria de liberaciones de **5 horas y barnetegi o cursos de verano** (Anexo I).
- Convocatoria de liberaciones de **2 horas** (Anexo II).
- **Convocatoria especial** de liberaciones de **2 horas** para trabajadores/as que teniendo acreditado el B2B2 quieran **acreditar el C1C1**, y que su puesto tenga como requisito el B2B2 (Anexo III).
- Liberaciones para preparar el **C2C2** (Anexo IV).

Además, en el documento **"información complementaria"** se publican las características establecidas por el IVAP, comunes a los cuatro anexos anteriores.

Así pues,

Resuelvo:

Primero.- Publicar las convocatorias para los cursos de euskara del año 2026-2027.

Segundo.- En caso de desacuerdo entre las previsiones contenidas en la presente Resolución y la Resolución del IVAP, prevalecerá lo dispuesto en esta última. Asimismo, la resolución del IVAP se aplicará en todas aquellas materias no específicas de estas convocatorias.

Tercero.- Contra la presente resolución podrá interponerse potestativamente recurso de reposición ante el Vicerrectorado de Euskara y Planificación Lingüística en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses.

En Leioa, a 14 de abril de 2026.

Miren Igone Zabala Unzalu

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordea
Vicerrectora de Euskara y Planificación Lingüística